

Xabier Gurrutxaga

ABOKATUA

## Etorkizuna ikuskizun

**A**zken hauteskunde autonomikoen ondoren Ibarretxek bere burua aurkeztu zuen lehendakariarako inbestidura saioan. Hitza eman zuen, alderdi politikoen artean normalizazio politikorako akordio zabal bat lortuz gero –bazterketarik eta indarkeriarik gabeko egoeran– herritarrei hitza emanen ziela balizko akordio hori baieztatu zezaten.

Ezertan hasi aurretik, Ibarretxeri eta hiruko gobernuari eszenatokia guztiz aldatu zitzaizen ETaren su-etenaren aldarrikapena zela-eta. Hura medio, protagonismoa, batetik, Zapatero eta ETaren eskuetara pasa zen, eta bestetik, Loiolan bildu ziren alderdietara.

ETAk su-etena amaitutzat eman zuela jakinarazi zigun eta horrek berekin ekarri zuen elkarrizketa politikoa- ren amaiera. Herritarren esperantzak eta ilusioak erabat ezabaturik gelditu ziren. Berrito ere kale.

Etsipen giro horretan kokatu behar da lehendakariak irailaren 28an Legebiltzarrean aurkeztutako proposamena, “ibilbide orri” eta guzti. Begi-bistakoa da ekimen honekin lehendakariak su-etenaren garaian izan ez zuen protagonismoa irabazi nahi duela. Jakin badakigu, proposamenak inkognita eta muga asko dituela, gainera, batzuk gaindiezinak direla eta beste batzuk askatzea, berriz, ez dagoela bere esku. Adibidez ETaren amaiera. Zailtasun horien artean, garrantzitsuenetakoa gizartearen babes politiko eta elek-



DANI BLANCO

toral bikain bat lortzean dago. Zapaterok eman dion erantzuna ikusita, geroz eta nabarmenagoa da datorren urteko hauteskunde orokorretan lortzen diren emaitzek izugarritzko garrantzia izanen dutela proposamenaren nondik norakoak argitzerakoan. Ibarretxerentzat eta jeltzaleentzat ez dira hauteskunde arruntak izango. Arrisku handiak hartu ditu oraingoan lehendakariak eta harrarazi dizkio alderdiari. Ibilbide orriaren nondik norakoa hauteskunde horietan gelditu daitekeela definiturik ohartu da Joseba Egibar eta horregatik egin du egin duen proposamena. Alegia, hauteskunde horietan Ibarretxeren ibilbide orriarekin ados dauden alderdiak elkarrekin joatea. Egibarrek arriskuak partekatu egin nahi ditu, onerako eta txarrerako, eta bide batez Ibarretxeren etorkizun politikoa babestu nahi du. Hura babestuz berea ere zaintzen baitu. Hartutako estrategiaren ildotik logika du Egibarren proposamenak, nahiz eta jeltzaleak eta abertzaleak ez egon oraindik horretarako prestatuta. Zapaterori edo Rajoyri erantzuteko Ibarretxek ez du nahikoa bere alderdian emaitzekin. Inpresioa dut lehendakariak hartutako erabakiaren ondotik eta ondoren ez ote den jeltzaleen artean halako “beldur eszeniko” bat gailentzen hasi. Salbamenduko ekiporik gabe ur handiegietan sartzen denak izaten duen inpresioaren modura. Etorkizuna ikuskizun dago, ilun ere bai. ■



Egibarrek arriskuak partekatu egin nahi ditu, onerako eta txarrerako, eta bide batez Ibarretxeren etorkizun politikoa babestu nahi du



## HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Oso, Egibarrek ezagutzera eman ez duen xabalarik gabe egin nahi omen duen jauzia. Hedabide batean Nafarroarik gabeko NaBai antzeko koalizioa behar omen da heldu den hauteskundeetan PSOeri eta PPri aurre egiteko eta Madrilen euskal hortzak erakusteko. Eta berak asmo hori plazaratzen zuenean, Ondarroan bertako gehiengo abertzalea ukatuz, ertzainen laguntza demokratikoaren indarra baliatuz, bere EAJ nagusitu egin da eta udaletxea okupatu formalki, eragotzi beharko litzaitekeen alderdien legea kako. Indarrak metatze aldera planteatzen omen du estrategia, garai batean Mayor Oreja

## Argigarria

gainditzeko Ibarretxeren aldeko botoa eskatu zuten bezalaxe. Baina Lizartzak lehenago eta Ondarroak orain, praktikan, alderantzizko errealitatea erakusten digute, bertako indarrak ahultzeko edozerk balio diela erakutsi baitute. Inguru hurbilean ezagutzen ditut zepoan eroritakoak, orduko eskarmentuz berriz ere nekez jausiko direnak. Iparraldeko EH Bain beharko lukete lehenik erakutsi indarren metatzeko prest daudela, frantses eskuindar chauvinisten berotik urruntzeko gauza direla, Euskal Herria dutela helburu eta ez beren EAJ. Baina argi da, EAJ dute xede Euskal Herriaren kaltetan bada ere. Iparralde honetan badugu horren berri, Ondarroan legez. ■